

TTAKUN (H)ERRENKA

Irailak eraila

S

*ei Personaggi in cerca
d'autore (Sei pertso-
naia egile baten bila)*

antzezlan sortu zuen

Luigi Pirandellok. Lan

horretan, izenburuak esaten duen bezala, egile baten bila dabilen sei pertsonaia topatuko ditugu. Ez da hori nik dudana arazoa. Ez dut egilearen bila aritu beharrik. Nik nire egilea ezagutzen dut, ez bakarrik bere liburuak. Uste duena baino askoz hobeto, gainera: Beñat Sarasola (Donostia, 1984), olerkaria eta literatur kritikaria. Filosofian lizentziaduna. Literatur Teoria eta Literatura Konparatua ikasten ari da Universitat de Barcelonan. Euskaraz bi poema-liburu argitaratu ditu eta Philip Rothen *Nemesis* liburu euskaratu du. Wikipedian aurkitu dut hari buruzko informazioa. Beraz, bada norbait. Hori uste du berak. Bere “ADN literarioa” *Alea* liburuan antzeman nion. “Poztu egin naiz zaila dela esan didatenean” esan zuen aurkezpenean. Hori duk eta! “Posible da berri-tzailea den zerbait idaztea? Bukatu al da abangoardia? Posible da politikoki eraldatzailea den proiektu bat eraikitzea?”, liburuarekin galdera batzuei erantzun nahi izan diela ere azaldu zuen. Ez dut nik ondo ikusten bere burua. Lepo gainean ez, behintzat. Hondartzan, beharbada. Kazetari Berria Rikardo Arregi saria jaso zuen iaz. Eta orain, ARGIA astekarian, *Ttakun (h)errenka* sailean idazten dituenak (alajaina, izen hori jarri zionak hanka baino beste zerbait gehiago behar zuen herren), artikulua irakurrienen zerrendan azaltzen dira Sarasolarenak, oso gustura eta interes handiz irakurtzen omen dizkiote, eta noski, ospea –arrakastaren izartegi elektriko hori– ezin daiteke txarrago sentsurik ez duenarentzat, eta halaxe dabil orain guapitua, *argiak* itsututa. Harrotu egin zaigu, euskal

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apalaza

letra aerodinamikotako gure Cesc Fabregas, euskal poesia antipoetikoaren gure Justin Bieber, euskal pentsalari erbestera berrien gure Tom Cruise ilehoria. Izan ere, ezin esan guapoa ez denik. Kirmen Uribe *Bilbao-New York-Bilbao*ko pregoilari jantzia baino askoz ere ederrago, dudarik

ez egin. *Zutabe* aldizkariko sortzaileek munduko poeta sexien zerrenda ezagutzera emango balute, bertan Joan Mari Irigoien, Bitoriano Gandiaga eta Beñat Sarasola aurkituko genituzke, besteak beste. Arrakastatsua, gaztea, galanta, sinpatikoa, azkarra eta xarmagarria. Ondorioa: literatura egin nahi du. Balizko nobela batean berrerabiltzeko moduko *ttakunak* idatzi. Aurreratuko dizuet: Uxue izango da hiltzailea eta José Luis, berriz, detektibea. Beñat Sarasola, ARGIA, 2286. zenbakia, 2011-07-24. Eskuarlean daukat frogia. Ia argituztat daukat kasua. Zer egingo dugu ba, kapritxoa sartu zaio mutikoari. Eta gainera lehen euskal *best seller* onena idatziko du gure kontura. Okerrena, Uxue pertsonaia trabarik gabe onartu diola emandako papera. Are okerrago, “hiltzaile izateko ohorea” ematen diola aitortu zion bere eta bion egileari. Ikertu egin behar dut Uxue delako hori. Bihar. Gaur, nik nirea esango dizut, Sarasola jauna: greba egingo dut nire eskakizunak betetzen direla egiaztatzen dudana arte. Bost dira: pertsonaia astakirtenei José Luis jartzen zaie, normalean, ba niri Ander esango didazu, Ander BlackBerry. Hori lehenengoa. Bigarrena: Amy Winehouse zenaren ile berdina eramatea Uxuek. Hirugarrena: inoiz gure nobelarekin telesaila egingo balute, niri Kandido Urangaren ahotsa jartzea. Lau: Roberto Bolañoren liburu bat, dedikatua. Eta bost: zure hilketa argitzeko agindua lehenbailehen ematea. ■



Zutabe aldizkariko sortzaileek munduko poeta sexien zerrenda ezagutzera emango balute, bertan Joan Mari Irigoien, Bitoriano Gandiaga eta Beñat Sarasola aurkituko genituzke, besteak beste. Arrakastatsua, gaztea, galanta, sinpatikoa, azkarra eta xarmagarria. Ondorioa: literatura egin nahi du

